



HITZARMENA
SOPELAKO UDALA
ETA

SOPELA IGERIKETA SWIM KIROL KLUBA
CIF G95307021

ZER FINANTZATZEKO:

- Langileak (entrenatzaileak)
- Entrenamendurako/ekipamendurako materiala
- Lizenziak
- Bulegoko/telefoniako materiala/kudeaketa programak
- Ekitaldietan parte hartzea
- Ekitaldiak antolatzea
- Azterketa medikoak
- Aseguruak





SOPELAKO UDALAREN ETA SOPELA IGERIKETA SWIM KIROL KLUBAREN ARTEKO HITZARMENA

Sopelan, sinadura elektronikoaren datan

BILDUTAKOAK

Alde batetik, GURUZNE CARRASSON TORRONTEGI anderea, Sopelako Udaleko alkate-udalburua.

eta bestetik, UNAI ESPINA MARTÍNEZ jauna, SOPELA IGERIKETA SWIM KIROL KLUBAren buru moduan, helbidea Sopelan, NAN 14604981-G zenbakiduna.

ESKU-HARTZAILEAK

GURUZNE CARRASSON TORRONTEGI anderea, Sopelako Udaleko alkate-udalburua, Udalaren izenean eta legezko ordezkari jarduten duena, Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat.

Francisco UNAI ESPINA MARTÍNEZ jauna, SOPELA IGERIKETA SWIM KIROL KLUBAren burua G95307021 IFZ zenbakiduna, klubaren izenean eta ordezkari jarduten duena. Klubak Sopelan helbidea du, Bidebieta kalean 9-1º, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Kluben Erregistroan inskribatuta dago, 3333 Erregistro zenbakiarekin.

Esku-hartzaileek elkarri legezko ahalmena aitortzen diote HITZARMEN hau egiteko, eta elkar hartuta ondoko hau.

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- Alderdi biek, hitzarmen honen bidez, Sopelako udalerrian kirola sustatu nahi dutela, igeriketa modalitatean.

BIGARRENA.- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 22.2.a) artikuluan ezartzen denaren arabera, toki-erakundeen aurrekontu orokorretan izen eta guzti aurreikusten diren diru-laguntzak zuzen-zuzenean eman ahal izango dira, eta hitzarmenak izango dira izendun diru-laguntzak bideratzeko ohiko tresna.

HIRUGARRENA.- Sopelako Udalaren 2025 urterako aurrekontuan 8.000,00 euroko izendun diru-laguntza jasota dago "MUS" klubaren alde.

Horregatik guztiagatik, formalizatu egiten da hitzarmen hau, ondoko hitzarkinak dituen.





HITZARKINAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da Sopelako Udalak, SOPELA IGERIKETA SWIM KIROL KLUBAREN aldeko diru-laguntza emateko baldintzak arautzea, diru-laguntza horren bidez laguntza eman nahi baita klubaren ohiko jardueratik datozen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- PROGRAMA.

2025. urterako ekarritako agirietan deskribatutako jardueraren arabera, egitasmoa edo programa, 24.300,00 eurokoa da.

24.300,00 euroko aurrekontua onartu da txosten teknikoan adierazitako arrazoiengatik, eta 8.000,00 euroko dirulaguntza eman da, hurrengo taulan adierazten den bezala.

Partida	Aurkeztutako aurrekontua	Onartutako aurrekontua	Diruz lagundutako %	Dirulaguntza
Langileak (entrenatzaileak)	11.300,00 €	11.300,00 €	39,000	4.407,00 €
Entrenamendurako/ ekipamendurako materiala	1.700,00 €	1.700,00 €	12,625	214,63 €
Lizentziak	6.000,00 €	6.000,00 €	39,000	2.340,00 €
Ekitaldietan parte hartzea	2.500,00 €	2.500,00 €	12,625	315,63 €
Bulegoko materiala / telefonia / kudeaketa programak	400,00 €	400,00 €	12,625	50,50 €
Ekitaldiak antolatzea	800,00 €	800,00 €	39,000	312,00 €
Azterketa medikoak	1.000,00 €	1.000,00 €	12,625	126,25 €
Aseguruak	600,00 €	600,00 €	39,000	234,00 €
TOTAL	24.300,00 €	24.300,00 €	32,92	8.000,00 €

Programa justifikatuta geratu beharko da, hitzarmen honen zazpigarren klausularen arabera.

HIRUGARRENA.- FINANTZAZIOA.

Diru-laguntzaren zenbatekoa 8.000,00 eurokoa da.

Hitzarmen honetan lagundutako edozein ekintzarentzat jasotako edozein laguntza edo beste diru-laguntza jasoko balu, idatziz jakinarazi beharko dio egoera hau klubak Sopelako Udalari.





Ordainketari dagokionez, Hitzarmena sinatzerakoan, diru-laguntza guztia ordainduko zaio klubari, zeren eta Sopelako Udalak emandako diru-laguntza hau beharrezkoa da klubaren ekintza hauek burutu ahal izateko. Guzti hau, diru-laguntzen Udal araudiak bere 18. artikuluaaren bigarren paragrafoarekin jasotakoarekin adostasunean.

LAUGARRENA.- MUGAK.

Bigarren hitzarkineko partida bakoitzari dagozkion diru laguntzen zenbatekoak diruzko gehieneko mugak dira. Hala ere, gerora sortutako beharrak direla eta entitateak uste badu hitzarmen honetan aurreikusitako helburuak hobetu daitezkeela zenbateko horiek aldatuz, ehuneko 20raino gehitu litezke **onartutako aurrekontuaren zutabea**n agertzen diren zenbatekoak —ehunekoa aplikatuta, diru laguntza ere neurri berean handituko litzateke—, **betiere gehikuntza hori, konpentsatuta badago zerekin eta diruz lagundutako partidetan igotzen den zenbatekoaren adinako jaitsierarekin**, ezin baita gainditu jasotako diru laguntzaren euro kopuru osoa.

Aldaketa onartu ahal izateko, entitateak honela jokatu beharko du:

- Diruz lagundutako partiden batean onartutako aurrekontuaren %0,1 eta %10 bitarteko goranzko aldaketak diruz lagundutako entitateak berak erabaki litzake, berak bakarrik, betiere aurreko paragrafoan zehaztutako baldintzak betetzen badira.
- %10etik gorako aldaketetarako, Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen baimena beharko da, betiere instrukzio organoak aldeko txostena eman ondoren.

Klubak idatziz jakinarazi beharko dio Sopelako Udalari ea beste edozein diru laguntzarik edo laguntzarik jaso duen hitzarmen honen xede den jarduera finantzatzeko.

BOSTGARRENA.- BETEBEHARRAK ETA PRINTZIBIOAK.

a) Sopelako Udalari jakinarazi beharko dio klubak hitzarmen honen bidez finantziatutako edozein ekintzarako beste diru-laguntza bat edo beste mota bateko laguntza ekonomiko bat jaso izan balu.

b) Klubak **euskara** erabili beharko du bere komunikazio eta dokumentu publikoetan. Argitara ematen dituzten publizitate-elementu guztiek EAEko hizkuntza ofizial bietan idatzita egon beharko dute; eta antolatzen dituzten jardueretan, bermatu egingo da hizkuntza biak bertan egotea. Halaber, esatari bat kontratatzen baldin bada dirulaguntzarekin ordaindutako kirol jarduetarako, lan hauetan —gutxienez neurririk handienez— erabilitako hizkuntza, euskara izan beharko da.

Horri dagokionez, alderdi horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dira honako hauen bidez:





- Publizitate-elementuak ekartzea.
- Bazkideen % 10ek gutxienez sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, urteko ekitaldien antolaketan EAEko afizio-hizkuntzen erabilera bermatu dela egiaztatzen duena.

c) Era berean, Sopelako Udalaren babesa agertu beharko da argitaratutako publizitate-elementu guztietan, nabarmen eta lehentasunezko toki batean, erakundearen armariarekin batera.

d) Klubak genero-berdintasunaren aldeko ekintzak sustatu eta garatu beharko ditu, bai eta nolanahiko bereizkeria saihestu ere, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ildo horretan, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan, besteak beste:

- Diruz lagundutako jardueretan berdintasuna bermatzea: Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatuko da jarduerak planifikatzean, garatzean eta gauzatzean, eta bi sexuen partaidetza orekatua sustatuko da.
- Hizkuntzaren eta irudi ez-sexistaren erabilera: Komunikazio, dokumentazio eta hedapen-material guztiek hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabili beharko dituzte, genero-estereotipoak betikotzea saihestuz.
- Genero-ikuspegia txertatzea: Jarduerak diseinatzean eta gauzatzean, genero-ikuspegia txertatuko da, bi sexuak sartzeko, garatzeko eta gozatzeko baldintza bidezkoak bermatzeko, eta diskriminazio mota oro saihesteko.

e) Klubak eta bere kideek Udalaren irudia errespetatu eta sustatu beharko dute.

f) Klubaren betebeharra izango da erabilitako instalazioak zaintzea eta instalazioen mantentze-lanetan laguntzea, bai eta instalazioetan zerbitzuak ematen dituzten langileak errespetatzea ere.

g) Jarduerak eraginkortasunez garatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzea.

h) Klubak, bere kudeaketan eta hitzarmenaren izenpetzaileekiko harremanetan, gardentasun-irizpideak erabiliko ditu. Era berean, Udalak eskatutako informazio guztia aurkeztu beharko du.

i) Klubak lortutako finantzabidearen eta dituen baliabideen neurriko jarduera egin beharko du.

j) Klubaren gain egongo dira klubean diharduten langileen lan eta zerga-arloko beharkizunak. Horretarako, Sopelako Udalak, aurrekoa betetzen dela egiaztatzeko, behar den informazioa eskatu ahal izango dio klubari.





k) Diruz lagundutako klubak erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu beharko du jarduerak eragin litzakeen erantzukizunak estaltzeko.

l) Bere kirol jardueretan printzipio hauek errespetatu beti: parte-hartzea, gardentasuna, eta aurkariari errespetua.

m) Bere kirol jarduera guztiak hezkuntza formazioaren eta osasun garapenaren printzipioekin bat egin.

n) Antolatutako jardueretan parte hartzen duten adingabekoak babestu eta bere eskubideak errespetatu 2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoari eta kirolari buruzkoa, ezarritakoarekin adostasunean.

ñ) Sopelako Udalaren izena eta armarria agertu beharko dira nabarmen eta lehentasunezko toki batean, eta beste babesle guztien gainetik, klubak bere kideen artean banatzeko erositako kaleko eta txapelketetan erabiltzeko arropan.

SEIGARRENA.- JARDUNEN JARRAIPEN BATZORDEA.

Hitzarmen honen jarraipena egiteko, dagokion batzordea eratuko da, honela osatuta: Alkatea, edo berak eskuordetzen duen pertsona; eta klubak izendatzen duen ordezkari bat. Hona hemen Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

a) Hitzarmen honetan aurreikusitako jardueraren gauzatze normalaren jarraipena egitea. Irizpideak eta moduak zehaztuko ditu informazioa partekatzeko eta bakoitzaren konpromisoak egoki betetzeko.

b) Kasu bakoitzean behar diren tramiteak arin egiteari traba jartzen dioten oztopoak kentzen laguntzea.

d) Hitzarmen honen ondoriozko jarduerak betetzen direla bermatzeko behar diren neurriek buruzko txostena egin eta neurriok proposatzea.

e) Onetsi edo errefusatu, bere kasuan, klubak egindako ehuneko 10etik ehuneko 20raino onartutako aurrekontuan jasotako jardueren laguntza handitzea, betiere gehikuntza hori, konpentsatuta badago zerekin eta diruz lagundutako partidetan igotzen den zenbatekoaren adinako jaitsierarekin, beti ere jasotako diru laguntzaren euro kopuru osoa gainditzen ez bada, eta neurri honekin hitzarmenak lortu nahi dituen helburuak lortzeko hobe dela uste bada.

f) Hitzarmena interpretatu eta egikaritzeko sor litezkeen arazoak ebaztea.

Jarraipen Batzordearen funtzionamendu-prozedura, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen II. Kapitulua 3. Atalaren 1. Azpiatalean azaltzen da, bertan jasota baitago kide anitzeko organoen araubidea.





ZAZPIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA.

Klubak, diruz lagundutako jarduera amaitu eta beranduenik, 2026eko otsailaren 28an, justifikazio-kontu erraztua aurkeztu beharko du, 887/2006 EDaren 72. artikulua arabera;

Kontuak ondoko dokumentazio hau eduki beharko du:

1. Memoria: **Egindako jardueraren memoria xehatua. Memoria honetan Udal diru-laguntzarekin ordaindutako ekintza edo gastu partida bakoitza epigrafe bat bezala agertuko da.** Hauetako epigrafe bakoitzaren barruan burututako ekintza bakoitza ondo deskribatuko da, eta aurreko urteen aldean aipagarriak diren edo berritasunen bat dakarten aspektu guztiak agertuko dira. Baita ere, klubak ekintza hobetzeko proposatzen dituen azalpenak, edo nahi duen beste edozein gauza agertu daiteke epigrafe bakoitzean.
2. Diru-sarreraren eta gastuen balantzea:
 - Diru-sarrerak: **Diru-sarreraren zerrenden barruan edozein kontzeptutan lortutakoak sartuko dira:** bazkideen kuotak, diru-laguntzak —publiko zein pribatuak—, jasotako edozein zenbateko —material salmenta (pegatinak, pinak eta abar), zozketak...—
 - Gastuak: **Jardueraren ondorioz edukitako gastuen erlazioa –Memoriarekin agindu bezala-** diru-laguntzarekin ordaindutako ekintza edo gastu partida bakoitza epigrafe bat bezala agertuko da.
3. Ordaindutako gastuen **jatorrizko** frogagiriak, **programaren zenbateko osora heldu arte.** Frogagiriok fakturak edo froga balioa duten bestelako dokumentuak izango dira, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak izan eta baliokideak badira. Frogagiriak diru-laguntzarekin ordaindutako partiden arabera egongo dira sailkatuta.

Xedapen honen lehen paragrafoan xedatutakoarekin adostasunean, Udaletxean kokatutako Udal Erregistroan aurkeztu beharko ditu jatorrizko frogagiriak, balantzearekin eta Memoriarekin batera, eta justifikazio-kontu erraztua osatzen duen beste edozein dokumentazioarekin batera.

A4 formatu estandarraren forma ezberdina duten gastu frogagiriak A4 formatuan aurkeztu beharko dira.

Klubak aurkeztutako jatorrizko gastu frogagiriak itzultzea eskatuko balu, hilabeteko epea izango du Udal administrazioak itzulpen hori gauzatzeko, gastu frogagiriak, bere kasuan, jigilatu eta gero.





4. 100,00 euro baino gehiagoko gorako ordainketak, banketxearen eserlekuarekin bitartez justifikatu beharko dira.
5. Diruz lagundutako jarduera dela-eta argitaratu diren foileto, kartel, liburu, bideo, CD-ROM eta horrelakoen ale bana aurkeztu beharko dira.
6. Halaber, dirulaguntzarekin ordaindutako arropen erakundearen izena eta armarrria agertzen direla ikusi ahal izateko, erositako arroparen ale bat edo argazki bat.
7. Gainera, bazkideen % 10ek gutxienez sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, urteko ekitaldien antolaketan EAEko afizio-hizkuntzen erabilera bermatu dela egiaztatzeko.
8. Hirugarrenei egindako kalteen (pertsonak edo gauzak) babesean, egindako erantzukizun zibileko polizaren kopia, eta dagokion ordainagiriaren kopia.

ZORTZIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA.

Udalaren kutxara itzuli egin beharko da jasotako diru laguntza, bai eta ordaintzen denetik itzultzea erabaki arte sortutako berandutze korrituak ere, Sopelako Udalaren diru-laguntzen kontzesioa arautzen duen araubide orokorraren 19. artikuluan jasotako edozein kasuan (2016ko abenduaren 23ko 243 zenbakia).

Zehazki, emandako dirulaguntzaren % 5erainoko itzulketa egingo da (ez-betetzearen mailaren arabera zehaztuko da), hitzarmenaren bosgarren klausulan ezarritako betebeharrak hauetako edozein ez betetzeagatik:

- Berdintasuna betetzea: diruz lagundutako jarduera zuzendu behar duten berdintasunari buruzko araudiak eta printzipioak ez betetzea.
- Euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea: diruz lagundutako jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko betebeharrak ez betetzea.
- Udalaren zabalkundea eta babesa: Sopelako Udalaren lankidetzarekin lotutako zabalkunde- eta babesletza-betebeharrak ez betetzea finantzatzutako jardueretan.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA INTERPRETATZEKO ARAUBIDEA.

Hitzarmen honek administrazio-izaera dauka, eta administrazioko antolamendu juridiko ezargarriaren arabera interpretatu eta garatuko da.

Aurreko Seigarren hitzarkinak bere e) letran ezarritakoarekin bat, Jarraipen Batzordeari dagokio hitzarmen honek edo bere garapenak ekar litzakeen interpretazio-arazoak ebaztea. Hori horrela ere ezin bada ebatzi, araubidetzat joko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan xedatutakoa.

HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.





Hitzarmena izenpetzeak ez du berarekin ekarriko esku-hartzaileen eskumenei uko egitea edo eskumenok aldatzea. Izan ere, esku-hartzaileek hitzarmenaren arabeko konpromisoen erantzukizunak baino ez dituzte beren gain hartuko.

Hitzarmena izenpetzen denetik sortuko ditu ondorioak, eta une horretatik bertatik esku-hartzaileak behartuta daude hor adostutakoa betetzera. Eta hitzarmenak iraungo du harik eta bertan jasotako beharkizunak kitatu arte, edo, bestela, 2025ko abenduaren 31ra arte.

HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENA AZKENTZEA.

Aurreko hitzarkinean aipatutako indarraldia amaitzen denean edo hitzarmena suntsiarazten denean, azkendu egingo da hitzarmena. Esku-hartzaileetako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste esku-hartzaileak ahalmena izango du hitzarmena zorrozki bete dadin galdatzeko edo hitzarmena suntsiaraz dadin eskatzeko.

Eta ezarritakoarekin ados daudela frogatzeko, bertaratuek izenpetu egiten dute dokumentu hau, ale bitan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA

SOPELA IGERIKETA SWIM KIROL
KLUBA

GURUZNE CARRASSON
TORRONTEGI

UNAI ESPINA MARTÍNEZ

